

Uxue Lardizabal Iturralde

A maila • Aipamena

Uxue Lardizabal Iturralde naiz, 1999ko maiatzaren 26an jaio nintzen Goierriko herri txiki batean, Seguran. Bitxia dirudien arren, Lardizabal kalean bizi naiz, Lardizabal jauregiaren alboan. Egun, 2.batxilergoko ikasketak burutzen ari naiz Beasaingo BHI Institutuan eta datorren urteari begira... datorren urteari begira zalantza ugari ditut. Osasunarekin lotutako ikasketak egiteko asmoa dut, baina mediku izango naiz ala erizain? Hainbat eta hainbat aldiz errepikatu didaten galdera horri erantzunik eman ezinda nago: merezi al du gaztaroa igarotzen uztea ikasketa batzuegatik? Ez dakit ba, agian bai, agian ez.

Txiki-txikitatik gustuko izan dut irudimenari leihoak zabaltu eta bururatzen zitzaidana kontatzea. Bai, idaztea gustuko dut, baina are gehiago gustatzen zait bat batean bururatzen zaidana kontatzea. Horretaz gain, baditut beste hainbat zaletasun ere. Horien artean aurkitzen da mendizaletasuna. Mendia da gogoetak egiteko toki aproposenetako bat niretzat, esna egonik amets egiten baitut bertan eta isiltasunak esnatzen baitizkit ideiak.



BEGIAK: MUNDU ILUN HONEN LEKUKO EZKUTUAK.

Harriak ez du begirik
ez ikusteko beharrik
triste, hotz bizi da bakarrik
guztion ostikadak jaso eta ezin eman
erantzunik,
itxuraz hain indartsua izan arren,
ez baitauka hitz egiteko indarrik

Baina guztiok entzun dugu sarri
zoriontasuna izan behar dugula oinarri,
bera baita guztion euskarri
Aldiz, mundua ari zaigu bihurtzen errukigarri;
hainbeste gerra eta gertakizun beldurgarri,
nola izango gara, ba, gizakiok eredugarri

harri bat ere ez bada guretzat errespetagarri!
Hala ere, harrituta galdetzen diogu elkarri:
zergatik bihurtu ote zaizkigu begiak harri?
Nik baditut bizpahiru erantzun aipagarri
buruan darabilzkidanak bueltaka aspaldi
baina ez naiz ausartu esaten inori,
iruditzen zaidalako geratuko naizela barregarri
horixe baita erakutsi diotena gizarte honi.

Maite denari azken agurra
egitean ez da giro,
baina zenbait herrialdetan
egin behar izaten dute behin eta berriro.
Gerrak, istiluek eramandakoak maitasunez
oroitzeko

badute nahiko motibo;
beraien izar distiratsuenak
nahiz eta itzali astiro,
maite dituzten guztien barnean
piztuko dira berriro
haizeak txistuz tiro soinu bortitz bat
ekartzen duen aldiro.

Oraintxe gaude amildegi ertzean,
egoera triste hau onartu ezinean,
Zehatzago esanda ,ezkutatu nahian
egoera lazgarri horretan daudenak
gu geu ez garen bitartean
Baina eskuak gurutzatuta jarraituz gero,
iritsiko zaigu eguna
lehen arrosa kolorekoa zena
beltz ikusiko duguna.
Guztiok gutxi batzuen agindupean,
berdin dio zein tribu, familia edo arrazatan
oinarritzen dira hainbat abantailatan
sartzeko bertakoen bizitzetan,
hauts bihurtuz zenbait bizipoz eta amets
loratzen hauen bihotzetan.

Hemendik aurrera, gau ilun izartsuetan,
hainbat harri hartu eskuetan
eta murgil ditzagun uretan
gure mundu honetan
hurrengo mendeetan
ez dadin egon harririk inguruetan,
indarra itxuran ez ezik izan behar delako
zainetan
begiak izan edo ez, jarrai behar baitugu
borrokan.